

# Ikastola baten historiaren sorrerak gordetzen duena

50 urte bete ditu aurten Olabide Ikastolak Gasteizen, 1963ko abenduaren 4an hasi baitziren zenbait ume, banaka-banaka, Izaskun Arrue maistraren etxeko eskaileretan gora. Gasteizko ikastolarik zaharrenaren hazitzat daukate Zerkabarren kaleko 9. zenbakiko etxea –Arrueren bizitokia, alegia–, baina hazi hura baino lehen ere izan zen besterik. Ikastolaren 50. urteurrenak 1963 aurreko garaietara bidaia egiteko parada eman digu.

| MIEL A. ELUSTONDO |

50 URTE Gasteizko ikastolarik zaharrenak, eta askoz ere gehiago, aldiz, Andoni Perez Cuadrak (Gasteiz, 1926) gerra aurrean Arabako hiriburuan zen giroa umetan ezagutu-tako lekuko bizia. “Zazpi urte nituen ikastolan sartu nintzenezan”. Andonik, izan ere, izen horixe darabil Zapatari kaleko Euskal Eskola aipatzen duen aldiro: ikastola. EAJ-ren ekimena zen, ezinbestean. “Ikastolan Pilar Landaburu genuen andereño”. 1933an hasi zen Andoni ikastolan, eta orduko ikasleen zerrenda osorik inon gorde ez bada ere, aski informazio osatua ematen digun erlikia batek argibide paregabea ematen digu. “Nire anaia Josetxuren jaunartzeko oroigarria daukat. Done Mikel parrokiaren egin zuen jaunartzea, 1936ko uztailaren 5ean, gerra hasi baino hamabost egun lehenago! Bada, oroigarri horretan egun hartan jaunartzea egin zuten ikastolako haur guztiguztien izenak datoz. Horixe bai-tezpadako zerrenda!”.

Ikastola izan, Euskal Eskola izan, gaztelaniaz erakusten zuten, Errepublikaren eskola nazionaletan antzo. “Gurean, dena den, erlijio eskola ematen zuen Etxebeste anaia jesuitak, eta Errepublikaren eskolatan ez bezala, gurutzera genuen gelan. 40ren bat ikasle ginen”.

Zerutik jakina da eskolaz kanpoko ekintzak nagusi direla gaur



Izaskun Arrue irakaslearen ikasleak, Zerkabarren kaleko ikastolan, 1964ko otsailean.

egun, baina orduan ere ikasleek bazuten hortik. “Iluntzean –ez egunero ere, baina bai astean zenbait aldiz–, zazpiak alde horretan, beste zenbait ekintza izaten ziren delako eskola hartan: Gaztetxuak esaten zitzaion [Euzko Gaztetxu Batza, EAJ]k gerra aurretik haurrak bere girora ekartzeko ekimena]. Han, euskarazko eskolak, dantza, antzerkia... eta horrelakoak egiten genituen, hainbat pertsona larriren ardurapean: Uralde, Julian

Agirre, Atorrasagasti ahizpak, Castresana, Peli Presa, Estibaliz, Maritxu Alava... Gaztetxurik ez bazen, arkupe plazako [Plaza Berria, edo Espainia plaza, gaur egun] batzokira joaten ginen”. Hiru urte iraun zuen giro horrek. Gero, ez ikastola ez Gaztetxu, zuztarretik zapuztu zuten Andoniren eta gainerako umeen bidea. 1936ko uztailaren matxinatu Franco, ikasleak oporraldian zirela, eta ondoko irailean ez zen ikastolarik

ez inolako euskal eskolarik. Hiru urte izan ziren. “Gerra, eta handik atzera, klandestinitate gorria!”, Andoni Perez Cuadrado esan gustu duenez.

### Klandestinitatea

Andoni Perez Cuadradoaren arabera, gerra ondoan Gasteizen ezagutzen den euskarari buruzko lehenengo ekintza Andoni Urrestarazu *Umandiren* eskutik etorri zen. Perez Cuadrado *Bidegileak* bilduman idatzia duenez, Urrestarazu Santandereen –bi urtez–, eta Larrinagan eduki zuten kartzelan preso. Ondoren, egonaldia egin zuen Donostian. “Azkenik, Gasteizera itzuli zen eta bertatik hasi bere bizitzako lana izango zena: euskararen irakaskuntza (...) Gogora dezagun, une batez, zer izango zen 1942ko Gasteiz hura, Umandik aurkitu zuena espetxea utzi zuenean.

Giroari gutxi begiraturik, une hartantxe hasi zen, etxean, euskara irakasten bertara hurbiltzen zirenei”. Hamasei urte zituela, haiekin bat egin zuen Perez Cuadrado, beste zenbait lagunekin batera.

### Pedro Anitua, Ramon Narbaiza

80taka urte gainean, eta gauzak oker esango ote dituen kezkatan bere izena ezkatatu nahiago duen lekukoak kontatua dakigu. Andoni Urrestarazuren ikasle izan zen, eta bertatik bertara bizi izan zuen orduko giroa. Are, historia honen kate-begi galdua dugu gure lekuko ezkutu hau. Elizbarrutiaren Ikastun Eskolan hasi zen 1945ean, Arana kalean, hamalau urte betetzeari. Pedro Anitua apaiza izan zen eskola haren eragile; eibartarra Anitua, hango Arma-eskolaren gisakoa egin nahi bide zuen, laneko adinean ziren gazteei aukera eman lanbide bat ikas zezaten. Anituak, Soralezeko plaentxiarra izan zuen ondoan: Ramon Narbaiza, behar zen lekuan egon ohi zena, nahiz eta bere burua agertu zale txikia izan, itzalean nahiago zuena beti. Gasteizko seminarioa Bizkaiko eta Gipuzkoako apaizgai gaztez beteta zegoen garai hartan, eta dudarik ez, euskal kontzientzia pizten lan egin zuten batek baino gehiagok. Sasoi hartan, “tandem



1933an Pilar Landaburu zen irakasle Gasteizko “ikastola”n.

bikaina osatu zuten Anituak eta Narbaizak”, esan digu Jose Antoniok.

Ikastun Eskolan mekanikari ikasi zuen gure berriemaileak. 1942an ireki zuten eskola, eta hiru-garren promozioa izan zen gure lekukoa. Ikastun Eskola hartan izan ziren, adibidez, Obdulio Lopez de Lacalle, Anjel Aranzabal, Jose Antonio Arriola, Peli Martin eta beste hainbat. Eta ikasketa haien barruan, bateko tornu eta beste ko torloju, erlijio eskolak. Aldi berean, Elizbarrutiak etxe bat jaso zuen dohaintzan Nieves Cano kalean, Villa Nieves, elizak irakaskuntza-lanean erabil zezan agindua emanik. Han, neskentzako eskola ireki zuten, haiek jantzigintza eta administraritzan trebatzeko asmotan. Hango irakasleetan ezagutu bide zuen On Ramon Narbaizak Umandiren arreba Terese Urrestarazu, irakasle-ikasleak egin baitzen Terese. Lotura horrek indar hartuko zuen urte batzuk geroago.

### Andoni Urrestarazu ‘Umandi’

Dakigunez, On Ramon Narbaizak ez zituen, bakarrik, erlijio eskolak eman. Mendi-irteerak antolatu zituen edo haietan parte hartu zuen. Mendi tontorretan meza eman ere bai, askotan. Mendialdi haietan bat egin zuten Arana kaleko mutil ikas-tunek, zein Villa Nieves hartako

neskek. Giro horretan bultzatu zituen gazte haiek On Ramon Narbaizak euskara ikastera. Izan ere, horretan zen 1951n Andoni Urrestarazu *Umandi* Gasteizen, San Antonio kaleko etxean, trenbidearen kontra-kontra. Euskarazko eskola haietan zen, laster, gure berriemaile anonimoa. Honek, oraindik gordea du Andoni Urrestarazuk 1953an Parisko erbestetik jasotako eskutitza; gordeak ditu, era berean, irakasleak banatu ohi zizkien orrialde-oharrak, eta haiekin batera, orrialde haiekin baliatuz Urrestarazuk osatutako gramatika, *Euskal-Eliztia* (euzkeraz idatzita), 1955eko edizioa, gero!, Parisen ondu zuena. Izan ere, 1951ko bi eguneko grebari jarraiki zitzaion errepresioak kolpe latza eman zion EAJren sareari Gasteizen, eta Umandi –eta gainerako lagunak– ez ziren onik irten. Umandi, hasteko, Bakea kaleko kartzelan eduki zuten, eta, ondoren, Arabako hiriburutik 100 kilometroa agindu zioten. Huescan eta Iruñean ibili ondoren, Hondarribitik Hendaiara Bidasoa itsasbeheran igaro, eta Ipar Euskal Herrian egonalditxo eginik Parisa jo zuen. “Egun batean, Andoniren euskarazko eskolara joan betiko moduan, eta haren arrebak beste inork ez gintuen hartu. Andoni kanpora joana zela esan zigun. Hiru lagunek ihes egin zuten, hirurak EAJkoak. Handik egun batzuetara, haiek Iparraldera onik heldu eta etxean jakinarazi zutenean jakin genuen guk ere zer zen haien ‘kanpora joatea’”. Gure lekukoaren esanak dira. Urteak geroago, Gasteizko euskaltzale historiko Peli Martinek idatzirik utziko zuenez, Andoni







**Ikastolako haurren jaunartzea Estibaliz santutegian 1967. urte inguruan, Ixidro Baztarrika gidari.**

Urrestarazuren euskara eskolak ezinbestekoak gertatu ziren Arabako hiriburuko gazte haiek “euskal kontzientziak” jabe zitezen. Urrestarazuren ikasleen artean ziren, gure lekukoarekin batera, Obdulio Lopez de Lacalle, Anjel Aranzabal, Peli Martin, Jose Antonio Arriola... hots, Elizbarrutiaren Ikastun Eskolan On Ramon Narbaizaren eskutik ikasten jardundako gazte haixetakoak!

### Ramiro Maeztu Institutua

Umandi erbestean, baina sua pizturik, 1957an, euskarazko eskolak ematen hasiko ziren Gasteizen, Ramiro Maeztu Institutuan, gaur egun legebiltzarraren eraikina den horrexetan. Antolatzaile, hots handiz, Filologia eta Euskal Ikasketen Ramiro de Maeztu Institutua asmatu zuten. Arabako Hezkuntza eta Kultura Lurralde Ordezkaritzaren babesean jardun zuten, eta zenbait hitzaldi ere eratu zituzten, Joxemiel Barandiaran, Koldo Mitxelena, Arrue, Juan Gorostiaga... hizlari zirela. Urte bat geroago, 1958an, lehenbiziko gogo-jardunak euskaraz Gasteizen, San Antonioko elizan; Erreparadoratan, inola ere.

Peli Martinek idatzia utzi zuenez, udalari egin zioten erran delako institutuan euskarazko eskolak eratzeko eskaria. Alkateak, berriz, gobernadore zibilari jakinarazi zion, eta honek baietz, baina esanez udalak ez zuela

gisako ekimena baimentzeko ahalmenik, Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzak zuela eskumena, ez beste inork. Gobernadoreak, jakina, bere sokako zuzendaria izendatu eta abiarazi ziren euskarazko eskola haiek. Peli Martinen arabera, lotsagabe xamar eta ausardia handiz, “euskarazko eskolak klandestinitatetik ateratzeko garaia zela uste genuen. Izen-ematea ireki, eta sekulakoa erantzuna: 244 lagunek eman zuten izena lehenengo urtean, 1957an!”.

1959an, beste urrats bat: martxoaren 15ean, Raimundo Olabideren jaiotzaren 90. urteurrenaren kariatara, omenaldia antolatu zuten hiriko Principal antzokian orduko euskaltzaleek, Euskaltzaindiarekin harremanetan eta Arabako Foru Aldundiaren eta Gasteizko Udalaren babesean.

**1957an, 244 lagunek eman zuten izena euskarazko eskolak emateko**

1962an bertan behera utzi behar izan zuen bere bidea Filologia eta Euskal Ikasketen Ramiro Maeztu Institutu hark. Urte hartan, Mugimenduaren Lurralde Batzordeak berealdiko asmoa izan zuen: euskarazko eskolak institutu hartatik

atera eta Mugimenduaren Bulego Nagusira eraman nahi izan zituen. Inork ez zuen ontzat hartu leku-aldatze hura. Hasteko, inork ez zuen izena eman. “Horrela desegin zen Filologia eta Euskal Ikasketen Institutu hura, eta, harekin batera, gure hirian euskara ikasten saiatu ziren ikasle taldeak”, Peli Martinen idatzietan. Dena den, ez zen amaiera izan. Jendea eginahalean saiatu zen, harik eta Jesus Obrero ikastetxean berriz ere euskarazko eskolak ematen hasi ziren arte. Geroago, Arte eta Lanbide Eskolan ere eman-go zituzten.

### Ezkingabeak ezkondu

Giroa hori zelarik, nola sortu zen, zehatz eta mehatz, Gasteizko lehenbiziko ikastola hura, aurten 50 urte bete dituen? Lekuko anonimoak du giltza: “Zer izango zen, bada! 1945ean Ikastunen Eskolan ginen haiek, gazte ezkingabeak, ezkonduak ginela 1960an, eta hiru-lau urteko seme-alabak genituela! Ordurako, abertzaletuak ginen, nazionalista ginen, sentimendua genuen, eta Peli Martin ea haurrak euskaraz eskolatuko genituen galdetza etorri zitzaigunean, baietz erantzun genion!”.

Eta, horrela, 1963ko abenduaren 4an, eta ondoko egun edo hilabeteetan, Gasteizen gerraondoa izan zen lehenbiziko andereñoaren etxeko eskaileretan gora –Zerkabarren kalea 9, laugarren solairua ezkerreko atea–, umeak eraman zituzten gurasoek Olabide Ikastolaren hazia erein zuten. Umeak ziren Itziar Lopez de Lacalle, Arantza Aranzabal, Iñaki Arriola, Pedro Ignazio Eloseg... eta Izaskun Arrueren seme zaharrena –Rafael Pikatoste–, beste zenbaitekin batera. Itziar... Arantza... Iñaki... Elizbarrutiaren Eskolan On Ramon Narbaizarekin, eta honekin mendian, eta honek eraginik Andoni Urrestarazu *Umandiren* euskarazko eskoletan ibilitako neska eta mutil gurasotuen seme-alabak.

Gerra aurrean jarri zuten harri haren gainean jaso zuten Olabide Ikastola hau. 50 urte, baina, zinez, askoz gehiago ere bai. ■

